BILBOKO UDALA AYUNTAMIENTO DE BILBAO | Prentsa Kabinetea Gabinete de Prensa | Erkoreka Plaza, 1 48007 Bilbao
Tel. 94 420 52 61 / 94 420 52 94 / 94 420 35 19 / 94 420 59 93 / 94 420 30 93 | Fax: 94 420 52 16 | prensa@alcaldia.bilbao.eus | www.bilbao.eus

# ERRIBERAKO MERKATUAK BULARRE KO MINBIZIAREN AURKAKO BORROKAREKIN SOLIDARIOAK DIREN GAZTA-LOREAK BANATU DITU

- ***Yolanda Diez*** **Bilboko Udaleko Osasun eta Kontsumo Saileko zinegotziak eta bere "*Flores de Queso/Cheese Flowers*" sorkuntza preziatuak direla eta ospetsua den *Santiago Mohedanok*, gaixotasun horren aurka Bizkaiko ACAMBI Elkarteak aurrera daraman borrokaren aldeko mokadu goxoak banatu dituzte.**

*(Bilbon, 2021eko urriaren 22an).-* ***Yolanda Díez*** Bilboko Udaleko Osasun eta Kontsumo Saileko zinegotziak eta *"Jardinero de las Flores*" ezizenez ezagutzen den ***Santiago Mohedano***k **Erriberako Merkatuan banatu dituzte gaur goizean helburu solidarioarekin sortutako gozoki horiek.** 2 euroko prezio sinbolikoan, bildutako dirua, bularreko minbiziaren aurka borrokatzen den Bizkaiko ACAMBI elkartearentzat izango da.

Erriberako Merkatuak **Idiazabalgo gazta** usaina zabaldu du goiz osoan. Ezaugarri nagusi ebaketa berezia duten eta egileak sortzen dituen gazta-lore horien lurrina usaindu ahal izan da Bilbon. Flores de Queso/Cheese Flowers 2020an sortu zen, gaztaren munduaz beste modu batean gozatzeko helburuarekin, lore-ebaketa bereizgarri horrekin berrituz. Artisau-gazta nazionalak erabiltzen dituzte euren sorkuntzak diseinatzeko.

Autonomia erkidego bakoitzeko gaztekin eta bertako ardi-, ahuntz- eta behi-esnearen barietateekin egindako ebaketa-formatu horrekin, dastatzeko unea ahoan ezustekoa bihurtu gura dute. 250 gazta-lore barietate ezberdin sortzera iritsi dira.

Erriberako Merkatua lorategi zoragarri batean sartu da, eta bisitariek modu solidarioan erantzun diote mokadu bikainari. ***Yolanda Diez*** Bilboko Udaleko Osasun eta Kontsumo zinegotziak horren arrazoia nabarmendu du. "*Bularreko minbiziaren aurkako borrokaren aldeko ekintza askorekin ari gara azken astebetean, eta Bilboko Udaleko Osasun eta Kontsumo Sailak ez du bide hori eten gura. Ekimen guztiak gutxi dira. Oraingoan,* ***Bizkaiko ACAMBI Elkartearentzat izango da bildutakoa****, gaixotasun horren aurka borrokatzeko. Euren lana izugarri eskertzen dugu, noski, euren eskutik jarraitzen dugu, gure babesa dute eta izaten jarraituko dute*".

Orduan Bizkaiko Emakume Mastektomizatuen elkartea zenak 1988tik izan duen ibilbide luzean, bilakaera handia ezagutu du, gaixotasun horren tratamendu medikoek ezagutu duten bezala. Hori dela eta, 2004an, izena bi arrazoirengatik aldatu zuten: "emakumeak" hitza baztertzea, bularreko minbiziak gizonei ere eragiten dielako, eta "mastektomizatuak" hitza ezabatzea, bularreko minbizia izateak ez duelako beti bularra erabat kendu behar denik esan gura.

2018an, elkartearen 30. urteurrenean, berriro ere izena aldatu zuten, minbizi ginekologikoa duten emakumeei ere laguntza emateko: “Asociación de Cáncer de Mama y Ginecológico de Bizkaia”.

# EL MERCADO DE LA RIBERA REPARTE FLORES DE QUESO SOLIDARIAS CONTRA EL CÁNCER DE MAMA

- **La concejala del Área de Salud y Consumo del Ayuntamiento de Bilbao, *Yolanda Díez*, y *Santiago Mohedano*, famoso por sus apreciadas creaciones, Flores de Queso/Cheese Flowers, han repartido los deliciosos bocados a beneficio de la Asociación bizkaina ACAMBI en su lucha contra esta enfermedad.**

*(Bilbao, 22 de octubre de 2021).-* La concejala del Área de Salud y Consumo del Ayuntamiento de Bilbao, ***Yolanda Díez**, y **Santiago Mohedano***, conocido como el "*Jardinero de las Flores*", **han repartido esta mañana en el Mercado de La Ribera estas creativas delicias con un fin solidario**. A un precio simbólico de 2 euros, los fondos recaudados irán destinados a la Asociación bizkaina ACAMBI en su lucha contra el cáncer de mama.

El Mercado de La Ribera ha destilado durante toda la mañana aromas a **queso de Idiazabal**, la fragancia en Bilbao de estas Flores de Queso que acuña su autor caracterizadas por su corte. Flores de Queso/Cheese Flowers nace en el año 2020 con objetivo de disfrutar de una manera diferente del mundo del queso innovando con ese este característico corte en flor. Utilizan quesos artesanos nacionales para diseñar sus propias creaciones.

Con este formato con cada uno de los quesos de las diferentes comunidades autónomas y sus variedades de leche de oveja, cabra y vaca, transforman el instante en el que se degusta en una sorpresa en la boca llegando a crear hasta 250 variedades de flores de queso diferentes.

El Mercado de La Ribera se ha metido en un delicioso jardín y las y los visitantes han respondido de manera solidaria al exquisito bocado. Precisamente, la concejala del Área de Salud y Consumo del Ayuntamiento de Bilbao, ***Yolanda Díez***, ha enfatizado la causa.

"*Venimos de una semana con muchas acciones en beneficio de la lucha contra el cáncer de mama y el Área de Salud y Consumo del Ayuntamiento de Bilbao no nos queremos detener. Todas las iniciativas son pocas. **En esta ocasión, lo recaudado irá destinado a la Asociación bizkaina ACAMBI en su lucha contra esta enfermedad**. Agradecemos enormemente su labor, por su puesto, seguimos de su mano, cuentan y pueden seguir contando con nuestro apoyo*".

En la larga trayectoria de la asociación desde 1988, entonces Asociación de mujeres mastectomizadas de Bizkaia, ha evolucionado, al igual que lo han hecho los tratamientos médicos de esta enfermedad. Por ello, en 2004, cambian su nombre por dos motivos: desterrar la palabra "mujeres", ya que el cáncer de mama afecta también a los hombres, y eliminar la palabra "mastectomizadas", ya que padecer cáncer de mama no siempre implica la extirpación total de la mama.

En el año 2018, coincidiendo con su 30 aniversario, cambiaron, de nuevo, su denominación para dar apoyo también a las mujeres con cáncer ginecológico: Asociación de Cáncer de Mama y Ginecológico de Bizkaia.